

ASHWAYATS

i s a b e l h u a l d e



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ISABEL HUALDE

ashwayats

Lekuak dira, han metatzen dira era guztietako zabor eta hondakinak (India, El Cairo, Tunisia...).

Batzuetan horien gainean eraiki dira auzategiak eta herriak.

Ashawayats gisa bildu ditut poema hauek, non gauzek beren dirdaia eta higadura agertzen duten, denboraren joanarekin, oroimenetik ezkutatzeari aitzi eginez.

Ni naiz jarlekua

Rosa Park-ek utzi ez zuena.

Nik neureganatu nuen
haren egintza-gogortasuna,
itzartu zituena
zurian beltz
gudaldi gorriak,
ni kiskaltzeraino.

Edo bestela
Rosa Park eta biok
gindoazen autobusa,
desagertu egin zen,
gure ametsen ondotik.

Egun batean abeslari
bertze batean urrikari
zabiltza, Rosa Park.

Burdin oker hauek
zure izenak zeharkatzen ditu!

Begiak ez behekitzea, ez amore ematea, ez altxatzea Alabamako gizon zuriaren aurrean.

Bizikletak

Gertatzen da egun batean hausten zaigula

-ardatz bat erradio bat kuberta bat-

txirrinak ez duela jotzen gehiago

eta inork ez gaituela konpontzen

herdoilak erasotzen gaitu

euriak lurra bedeinkatu ahala.

Zer egin dezakegu

ez bada izarpean lo egitea

hontzen begietan

eta gauaren ametsean

gure erradioen xirritaren ondotik

gorputz adarrik gabe

labainkatu

itzalen hiria

zeharkatuz.

Urrundu

urrundu urundu

Jainkoa itzarri aurretik

edo azken izarrak gu salatu aurretik

Hondorik gabeko infinitu baten gainean labainkatzea. Harantz labainkatzea. Ez labaintzea: Hezurren (eta arimaren) arola.

Eskailera

Ez banindu jarraituko lertzoak
ispilu leiho krakots
bidaia-kahier higatu artean.

Zeren bizia galtzea hori baita:
Ezagutzen ez zaituenaren hoztura.
Bizikletek
bozinaren faltaz
negar dagite
eta nire izatearen azkena
ahapekatzen dute

eskailera hautsia
horma horia zubiaren gain eroria
distirarik gabe

Halere, batzuetan, urrats isil batzuk
igotzen
eta jaisten dira nire gain.

Oxala ez badituzte aditzen /
ni lurrera botatzen saiatzen diren
aldiroko hitz horiek.

Oxala iristen badute ene mailek
gauaren neurria,
hutsalduz hutsalduz
herioren eskua.

Goratzea. Hanka puntetan, lehenik: bat, bi, hiru. "Hor lainoak" erran zenuen.

Igitaia eguerdian

Hura zen gizonak behatzea
lurraren gainera makurtuak
zeruei galdez lehortez edo
gari helduaren ezgaraiko
ekaitz-egartsuaz.

Ederra zen haien ahotsak - esperantzari eutsiz -
haien ahotsak entzutea
eskua ezarririk altzairuzko
aho-bizarrean eta egurrean,
eta eguzkiaren barrea barruetan.

Eta lanaldia bukatzea
euliak zeudelarik
etorkizuna amorrarazten
eta arima hautsia
hautsia
soroen zabal-handian.

Elkarbatze zorionekoa: bihotza-metala-egurra. Uzta. Helduko da negua, zalantzarik gabe.

Otarrea

Urtarrileko ihiak ilbeheran.

Beso malguk txirikordatu zuten
ene hezurdura.

Baten batek ebakiko zuen
aiztoz edo labanaz
eta lurpean ezarri zumea ordutan.

Ibilbide eta ohitura antzinakoen oroimina:

fruituak, barazkiak eta barraskilo lirdingak

adar zalantzariak argi zirrikituetan.

Sakonbila. Batera dira bizia eta ia-hila-dena. Bizitza bizitzaile egin.

Soka

Nik eragin nuen
urrezko gabilak tolestea
gerrialdetik,
balira edo
dantzazera doazen neskatikoak.

Ni lakirio izan nintzen axerientzat
eskeki izan daitekeena
lehortzen ari diren hestekientzat
eta ezproinik gabeko ganadu-lapurrentzat,
arrastan eramanak arrats beheran.

Nik zentzu eman nion
marinelaren burrunbotsari
korapilo egiten ari,
zubiak egin nituen
errekak erakarritako maitaleentzat
eta entzun nituen haren ertzetan
sekretu aitorrezinak:

*bihar
oilarrak eguna argitzean
zaunka bat entzunen da
eta odol-hari batek inguratuko du denda-ostea.*

Zakuak otarreak kapelak
alpretak orotarik
orotarik mugagabe.

oihartzunak
kordelak eskuan duen higiera
eta *zirrit-zarrata*
berrikatzen du.

Tinkatu, destinkatu. Tolestu ta gurutzatu. Gibel egin behar bada. Zeinuak trazatzea.

Tik-tak

Behar nuke ahal izan
atseden hartu
denboraren estueratik

gauaren gordepea bihotz baten eran
punpatzen duen TIK-TAK horretatik.

Ene aldamenen lo daudenen
loan pausatu,
alarmak kendu eta ene denbora
ezar dezala bertze batek.

Ahanturan iraun eta iraun
Orratzek dardar egin gabe.

Instamatic

Nik arrantzaren une iheskorra
atzeman nuen: arrainak
ihitza eta asma-ahal artean.

Kangreju gorriak jan ziren
atsegintzaz tartarik ezean:

jurte askotarako!

Neskato igel-aho eguerdian.

Kaleidoskopia

txitxarra eta lore-bikinizko uda

(debekatuaren plazera

ke kizkoletan urtegi ondoan).

Iraileko azken klik-ean,

finkatu ziren

zerura begiratzen zuten aurpegiak.

Hegazkin zilarkarek

kurriloen ordezt

kolpatu zuten belarrizuloa

ardiak sakabanatuz.

Guztia laster karazi zen:

instamatic-etik zoradura digitalizatura.

Ez zidaten utzi hartzen

Teresita Ramirez-en azkeneko dantza,

Twist erakoa.

Finkatu, irudiak atzera jarri: klik! Orain. Oroimenaren linterna, geratua.

Ispilua

“Zer egiten dute ispiluek/ Inor begira ez dutenean”

(Rafael Pérez Estrada).

Ez nuen sekula pentsatu
bertze aldean bizi direnak
nitaz nekatuko zirenik
hainbertze zeremonia
elkarrekin egin ondoren.

Lehenik ganbara izan zen eta orain
ahantzura eta gauza gardengabeen putzua.

bortxaezina nintzeneko egun haiek
gogoratzea
eta irautea gainzurizka
neure printza bakoitzean.

Ez nuen sekula pentsatu
bertzaldean bizi direnek
hortzak erakutsiko zituztenik.

Badator denbora, isla eta zorabioetan- erluitzeetan entretenitzera. Amarruak.

Markoa eta paisaia

Aretoko hoztasunean
inguratzen nauen markoaren estuan
itotzen naiz.

Ene zuztarrak
hurreratzen diren urratsen
zain-zain daude.

Zeren ezjakintasunak
soilik aintzat hartzen baitu
agertoki apaina,
derrigorrezkoa izan zen
arnastea eta lehertzea puskatan,
distantziak neurtuz.

Argi ekorketa
paisaiak bere jatorria aldarrikatzen du.

Neure zuztarren zainetan dabil
sortu ninduenaren eskuaren izerdia,
nitaz baso gobernaezin bat eginez.

*Atalasea zeharkatzea. **Ikastea.** Ezkardak ezagutzea. Berriro baretasuna.*

Ganbara

*Behin desiratuak izan ziren gauza guztiak/daude, bazterturik
koaderno txiki batean (Andrea Aguirre).*

Maleta eta koadernoen geografia.

Usaimenaren eldarnioa eta garbitzapena,
izpiliku eta kamamila eskutadetan.

Umeen begiradak

-zelofan argizeharkoloreak aldatzen ditu
laztasun hodeien aurka.

Mundu-bolaren

gain emandako ameskizunen
kaleidoskopioa.

Garai batean eguzkia gogoz saiatzen zen

hormak dirdirarazten

eta gauzen azala laztantzen.

Ikuskatu. Fokatu. Balio ez duena bota. Zaborren erbesteratzea.

Bitakora

Duda-muda
zabaldak,
nola den
uhartedi bat
bitakora-kahier zaharrear.

Motxilan hipnosia,
ahots aldakorra,
eta itsas-maskorren
burrumba eta oskol lokartua.

Hare-latitudeak. Abant egin. Ertzean jarri. Itsaslabarrak bereizi.

64. autobusa

Presa dagoelako
eta daudelako ahotsak
eta joan behar bat

haizeño batek
eskuan uzten duen
billetea.

Badira kolore-arkatzak
seinalatuz destinuak,
kurbak
zeru arre bat eta kazkabarra kristaletan
joka.

Paisaia batzuk puztu egiten dira,
hazten da belar txarra bideak erasoz
eta gauak beren errieta estutuz
tunelaren gainean.

64. autobusak
krask egin zuen
nola zimendu eraitsiak
aurpegiaren ezustekoan.

Eta jada guztia izan zen fikzioa,
begiak oroimenera dakarren
trikimailuaren erara:

bidaztiak eta ezinegonak
ilaran geltokian
-litekeena gertagaitzean-.

64. autobusak
dakarren gorri dirdaitsuak
paisaia erdibitzen du
bidean aurrera egin ahala.

Presa dagoelako
eta daudelako ahotsak
eta joan behar bat.

Seinaleztatzeak

Puntu gorri bat
entziklopedia bateko
mapa zimurrean.

Trazu argitsuek
argia anizten dute
erauzitako haurtzaroaren gain
-masustak eta erregaliza ezpainetan-.

-Lerro urrekarak ez
gari-sailletan-

¿gorputz lirainek
beren errugabekotasuna galdu al zuten?

Puntu gorri batek
bereizten du:
eustea ala oroitzeari-uztea
urteen joanean.

Lekuen hostotza eta zaineria. Daitekeena da agortasuna. Sigi-sagak.

Zerrategia

Intxaurrondoa ebaki zuteneko
azken lekukoa zen, urteak ez dira erraten,
haren arrainkari usain hotzaz ez mintzatzeagatik.

Misterio bat zen jakitea
geratzen ote zen lehia-kaldarrik
haren arrasta eta zabukaren gibelean

zuztarren auhena
zerraren hortzen pean,
presakako eskarientzat elikatua.

Lekuko izanen zen,
neguko hitzorduaren lekuko,
tatuatua desafioz:

itzartzea zeropeko hotzean,
mendigainak lokartuxe,
elurrak janzen dituela.

Buruzkintza eta ihardukimena. Solas-aldatzea eta hitzaldia etetea.

Baso-larrutzen ez uztea.

Trukea

Haren argia ezarrita geratu da
oroimenaren korridoreetan.

Poetarrak eta poetemeak bertsoak aldean
deusezen truk ematen zituzten,
irribarre baten truk
edo txanpon batzuen truk.

Begiak itxiz gero
ikusiko nituzke
irudikatutako herri batean,
poemak irakurriz
ilargiaren
linternapean,
bidetako babesle,
lorez mukuru dagoen
aranondo baten alboan.

Atzean nabarmen legoke
zozoa bere lumatza beltzarekin
estrofa laburretan egindako txirula-kantuan.

Eta belarraren dirdai ezbaikoa,
ipurtargi argituak,
bertsoen eraginpean.

Gairatu. Bildu. Hitzaren dardara. Memoria sedimentatzea.

Orrialdeak

Liburu batek beregana
deitzen ditu hegaztiak.

Haize kiribila,
ez dugu onartuko ilargi hilaren hotza
haren orrien gainean

Hego astintzea lursalien gainean.
Logura garaile.

Zerua eta ilargi horia hegaldatzen dira.

Liburu batek hegaztiak deitzen ditu
bere orri hautsien ahanzturara.

Iraunbizitzea hegaletan, lumetan, txorietan. Idazketan egotea.

Erraten dute gauzak

“Norarteino dauden migrazioan gauza guztiak!/ nola
babesten diren gugan, nola nahi duten, denek, beren
kanpo, bizitzatik salbatuak izan (Rilke).

Erraten dute gauzak
gauzak bakarrik direla.

Ez direla sekula maitemintzen
loreen ihintzaz
edo elurteetan zuriz estaltzen dituzten
malutez.

Erraten dute gauzak hotzak direla
gorputzen usaina aditzeko ezgai,
hurreratzean, euritako botak jantzita
edo lentzeria leuna beroki azpian dela.

Urruntzean gu
ezpainetan galdera dugula
beti-sekula ez-inoiz ez
edo bien bitartean.

Ikusi ere ez gaituzte egiten.

Erraten dute gauzak
gauzak bakarrik direla,
higaduraren erlojutik
ihes egiteko
ezgai.

SEKULA ez nien aditu oihurik
haien molekulak haustean,
galdu zireneko
gau erranezinean.

IDAZLEA

*“Erraz ihes egiten ahal zuen. Baina ez zion idazteari uzten eta guztia ixten zuen inguruan
hitzeekin”*(Jordi Doce)

“Hitzak nahasteko idatzi/ eta gauzak ager daitezela “(Chantal Maillard)

*“Luma lurrean mugitzen da: ez daki gehiago/zer gertatuko den, eta eusten duen eskua/
desagertu da”*.(Paul Auster)

Idazlea

Euri-psiaren bakea
etor bedi lurrera.

Horrela jarri zituzten
nire gorpuzkinak
maite nindutenek.

Nola pentsatu ene eskuak
gozatuko zuela idazketa
haize eta hurakan-abezedarioetan
eraginez ihesa eta zubien hondoratzea

eta gaindikatu ziren ibaiak
ontzi-hondoratze eske.

Edo bertzenaz, idazten zuen eskuak
lustrea atera zion
bainugelan tantaka zegoen iturriari
maitaleek aldarrikatzen zutelarik
beren desirarekiko mira

*zamalkatuko dugu gaua
aingeru biluzien eran
jainkoen handiusterik gabe.*

Eta sinatu ziren akordioak
eta hazi ziren garitzak
edertasunaren trostan
(traizio edo hilarririk batere ez landetan).

Baina sukarrak dirau,
idazketaren otoitz amaigabe,
ene eskuaren dardaran.

Poemek eta objektuek
betikotu nahi dute
betikotasun honen agindu sakonean

han barre egiten diote
ene kontzientziaren nekeari,
egin gabe menik
denborak eginiko higadurari.